

Aranguren ibarreko 2023ko HIRI KANPALDIA



Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatzen duen Hiri Kanpaldia, batez ere, Aranguren Ibarreko emakume eta gizonen familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzea dute helburu, eta, horrez gain, 4 eta 12 urte bitarteko (2011 eta 2019 bitartean jaiotakoak, biak barne) haurrentzako aisialdiko baliabide garrantzitsua da.



Maiatzak 23, 24 eta 25 ▶ ERROLDATUAK
26 EZ ERROLDATUAK (plaza libreak
geratzen badira)

948 012 012 TELEFONORA DEITUZ
(doan tarifa finkoa duten
telefonoentzat) edo 012ra
(deiaren kostua 0,34€)

ORDUTEGIA 08:00etatik 18:00etara

INFORMAZIO GEHIAGO:

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

📍 Mutiloa plaza

🌐 www.aranguren.es

☎ 948 15 13 82

✉ rgarralda@aranguren.es



DATAK

Ekainaren 26etik 30era.
Uztailaren 17tik irailaren 1era.

ORDUTEGIA

Jantoki zerbitzua barne:

Goizeko 7:45etik 15:15era.

Jantoki zerbitzurik gabe:

Goizeko 7:45etik 14:00etara.

Sarrera goizeko 7:45etik 9:00etara egin ahalko da. Irteera 13:30etik 14:00etara egin ahalko dute jantoki zerbitzurik ez dutenek eta 14:30etik 15:15era jantoki zerbitzua dutenek.

LEKUA

Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoan, batez ere.

EGITARUA

Gai ezberdinei buruzko tailerrak eta jolas edo kirol-jarduerak egingo dira, zeharkako kontzeptuak landuz (kulturartekotasuna, ingurumena, hezkidetzak, etab.).

Eguraldiak aukera ematen badu, jarduerak igerilekuan egingo dira.

KANPALDIAREN PREZIOA

Hiri-kanpaldiaren kostua honakoa da:

- Haur bat: **50 € astean.**
- Bi haur: **87,50 € asteko.**
- Hiru haur: **115,62 € asteko.**

*Aukeratutako astea lau egunekoa bada, prezioa egokitu egingo da.

Jantoki zerbitzua nahi izatekotan:

- Haur bakoitzeko asteko prezioa: **40 € (8 €/eguneko).**



ANTOLAKETA

Haurrak taldeka banatuko dira bi irizpide hauen arabera:

ADINA:

- **A taldea, 4 – 6 urtekoak.** (2017-2018-2019 urteetan jaiotako haurrak).
- **B taldea, 7 – 9 urtekoak.** (2014-2015-2016 urteetan jaiotako haurrak).
- **C taldea, 10 – 12 urtekoak.** (2011-2012-2013 urteetan jaiotako haurrak).

HIZKUNTZA MODALITATEA

- **Gaztelaniazko taldea:** eguneroko jarduera ingelesez.
- **Euskara taldea:** eguneroko jarduera ingelesez.
- **Ingelesezko taldea:** ulermen eta elkarrizketa maila onarekin.

IZEN EMATEAK ETA ORDAINKETA

Izena emateko eta ordaintzeko **948 012 012** telefonora deitu behar da, maiatzaren **23, 24, eta 25ean**, ERROLDATUEK, eta maiatzaren 26an, ERROLDATU GABEEK (plaza libreak badaude).

- Familia-unitate bakoitzak parte hartuko duen seme-alaba bakoitzeko aurre-izen ematea egingo du.
- Hiri kanpaldiek 8 aste iraunen dute, eta familia bakoitzak gehienez ere 2 aste hautatzen ahalko ditu parte hartzeko. Izena ematen duen hurrenkeraren arabera esleituko dira plazak, eta txandakakoak izan daitezke.
- Gurasoek hautatutako asteak lehentasun-ordenaren arabera antolatu beharko dituzte, eta izena ematean beste aste batzuk erreserba gisa adierazi ahalko dituzte, eskatutakoak beterik baleude.
- **Ez da epez kanpoko izen-ematerik jasoko.**